

Inbertsio-politika (laburpena)

Funtsak %75 gutxienez Europako errenta aldakorreko aktiboetan inbertituko du, batez ere dibidendu bidezko errentagarritasun handia ematen dutenetan, eurogunekoetan gehienbat. Tituluen kapitalizazioari edo likidezari ez da mugarik jartzen. Errenta finkoan, inbertitu ahal izango du jaulkitzaile publiko nahiz pribatuaren aktiboetan, kotizatuak izan ala ez, likidoak badira, aldez aurretik erabaki gabe baloreek kotizatuko duten merkatuak edo herrialdeak, jaulkipenen (edo jaulkitzaileen) ratinga edo batez besteko iraupena. %30, gehienez, dibisa-arriskuan. *Funtsak, bere inbertsioekin, ingurumen alderdiak eta/edo alderdi sozialak sustatzen ditu (2019/2088 (EB) Erregelamenduren 8. artikulua) eta kontrako gorabehera nagusiak (inbertitzen dituen enpresek ingurumenean eta/edo gizartearen eragindako inpaktu negatiboak) arriskuen azterketan eta inbertsio-erabakietan txertatzen ditu. *Inbertsio-politikaren azalpen xeheagoa funtsaren IFD dokumentuan ikus daiteke. *FUNTS HONEK %25 INBERTI DEZAKE ERRENTA FINKOKO KREDITU-KALITATE TXIKIKO JAULKIPENETAN, ETA, BERAZ, KREDITU-ARRISKU HAUNDIA DAUKA.

Ezaugarri Orokorrak

2026/04/30era

Ondarea: 32.913.203,06
 Komisioak guztira: %2,00
 Harpidetza komisioa: %0,00
 Errenbolto Komisioa: %0,00
 Fondo mota: EURO ERRENTA ALDAKORRA
 Arrisku-profila: 4 1-etik 7- rako eskalan
 Inbertsiorako gutxieneko epea: 5 urte

2026/04/30era Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa*	Urtekoa*	1 urte	3 urte	5 urte
%5,96	%1,20	%3,62	%16,32	%10,59	%7,10

*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.


2026	2025	2024	2023	2022	2021
%3,62	%18,61	%6,56	%16,59	-%15,08	%21,46

*Iraganeko errentagarritasunak ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunak.

2026/04/30era Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte** %12,63
 Lurrunkortasun 3 urte** %13,16

**Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoen antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.




Hileko iruzkina

Apirilean zehar, ingurune makroekonomiko eta finantzarioa oreka delikatu batek baldintzatu du: alde batetik, jarduera ekonomikoari eusten dioten oinarri ekonomiko sendoek, eta, bestetik, ziurgabetasun geopolitikoak markatutako testuinguruak. Arreta Ekialde Hurbilean mantendu da; hasierako ezustekoaren ondoren, merkatuek tonu eraikitzaileago baterantz egin dute, nahiz eta uanean?uneko lasaitasunak berriro agerian utzi duten akordio ahulen erreallitate, energia?eskaintzaren shock iraunkorra eta horrek inflazioan eta hazkundearen izan ditzakeen eraginaren inguruko zalantzen areagotzea. Nahiz eta ingurune makroekonomiko globalak espero baino erresiliencia handiagoa erakusten jarraitzen duen, Ormuzko itsasartearen itxieraren eragina pixkanaka inflazioa eta kontsumitzaileen konfiantzara hedatzen hasi da, epe laburreko ziurgabetasuna handituz. Testuinguru honetan, hile amaieran, merkatu?itxaropenek eurogunean EBZren interes?tasen bi igoera baino gehiago islatzen zituzten; Estatu Batuetan, aldiz, egonkortasun?ikuspegia nagusitu da, urte honetarako ez murrizketarik ez igoera berriak aurreikusitako gabe. Hala eta guztiz ere, burtsak oso tonu positiboarekin itxi dute apirila, berriro ere arreta jarriz enpresa?irabazien sendotasunean, oraindik aldekoak diren hazkunde?aurreikuspenetan eta CAPEX inbertsio?plan abiziotzuetan. Faktore horiei gehitu zaie azken asteetan ikusitako arrisku?gosearen gorakada orokorra, epe laburrean Ormuzko itsasartearen balizko berrikeria katalizatzaile nagusi gisa agertuz. Ondorioz, munduko burtsa nagusietako kotizazioak gatazka hasi aurreko maila ia berdinetan kokatu dira berriro, eta indize amerikarrak maximo berrietan daude, teknologia?sektorearen portaera onaren isla argi gisa. Zehazki, S&P 500 indizeak %10,4ko igoera izan du, eta Nasdaq?100ek %15,6koa; Eurostoxx indizeak, berriz, %5,6ko aurrerapen moderatuagoa erregistratu du, banku?sektoreak gidatuta. Nikkei indizeak %16ko rallya izan du, 2025eko urriaz geroztik hilabeterik onena, Japoniako teknologia?sektorearen errendimendu onari eta bonantza ekonomikoaren momentuari esker. Merkatu emergenteek, oro har, portaera oso aldekoa izan dute, eta nabarmendu da Korearen eta Taiwanen tonu erlatiboki ona. Errenta finkoari dagokionez, petrolio gordinaren prezio altuak eragindako inflazio?ondorioen inguruko ziurgabetasunak ekarri du estatu?zorraren errentagarritasunen igoera, epemugen kurba osoan zehar eta Atlantikoaren bi aldeetan, Estatu Batuetan apur bat nabarmenagoa izanik. Kontrara, periferia?zorraren portaera ona azpimarratzekoa da; izan ere, haren errentagarritasunak ez dute goranzko presiorik izan, eta horrek arrisku?primen murrizketa ahalbidetu du. Era berean, kreditu pribatuak bere diferentzialak mantendu ditu zorr publikoarekiko, merkatuaren konfiantza?maila egokia islatuz. Gainerako merkatuetan, dolarra pixkanaka ahuldu da hilabetearen zehar dibisa nagusien aurrean, arrisku?arekiko abertorioaren murrizketarekin batera; euroarekiko, kanbio?tasa berriro 1,17 \$/EUR inguruan kokatu da. Urreak ere behera egin du, eta petrolioaren prezioak lurrunkortasun handia izan du. Balantze garbian, %3,4ko beherakada metatu du, eta hilabetea upel bakoitzeko 122 dolarren inguruan itxi du, hilabeteko une jakin batzuetan lortutako 90 dolarreko mailetatik urrun.

Errenta aldakorrean posizio nagusiak

ACTIBO	PISU
AC. ASML NA 121126	%8,19
AC. SCHNEIDER ELECTRIC S.E.	%4,10
AC. SIEMENS	%3,66
AC. BNP PARIBAS	%3,04
AC. UNICREDIT SPA	%3,00

Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala



Errenta aldakorreko posizio nagusiak: zuzeneko esposizioa eta zeharkakoa barne.
 Errenta aldakorreko zorroaren banaketa sektoriala: zuzeneko esposizioa eta zeharkako esposizioa deribatuen eta ETF-en bitartez.

Dokumentu honen xedea informazioa ematea da eta inola ere ez da, ez kontratu-elementua, ez gomendioa, ez aholkularitza pertsonalizatua, ez eskaintza, eta ezta eskaera ere. Dokumentu honek ez du ordetzen edozein inbertsio erabaki aurretik legez kontsultatu beharreko informazioa; legezko informazioa nagusitzen da edozein desadostasun izanez gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeheren mende daude, eta baloreetako eta beste finantzatresna batzuetako inbertsioetako berezko arriskuei lotuta; horregatik, funtsaren eskuratze-balioak eta lortutako errentagarritasunak gora nahiz behera egin lezakete, eta litekeena da inbertsioegileak hasieran inbertitutako zenbatekoa ez berreskuratzea. Funtsaren legezko informazio-dokumentu guztiak (IFD, liburuxka, aldizkako txostenak, etab.) www.kutxabankgestion.es webgunean, entitate komertzializatzaileen webgunean eta CNM-ren erregistroetan kontsulta daitezke.